

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuak okupatutako pertsonentzako 4.200 plaza inguru eskaintzen ditu lanbide-gaitasuneko 256 ikastarotan

Zerrenda [empleo.navarra.es](http://empleo.navarra.es) atarian eta [formacion.info](http://formacion.info) app-ean kontsulta daiteke

Lunes, 19 de octubre de 2015

Nafarroako Gobernuak pertsona okupatuentzako bereziki eta langabeentzako prestakuntza-eskaintza argitaratu du [www.empleo.navarra.es](http://www.empleo.navarra.es) enplegu-atarian [formacion.info](http://formacion.info) aplikazioaren bidez. 4.164 plazetarako gaitasuneko 356 eskaintza dira, ehuneko ehun diruz lagunduta daude eta 1.729.126 euroko kostua dute.



Eskaintzaren barnean lau ikastaro-mota sartzen dira.

Prestakuntza hori 26 zentzoren bidez emango da, eta beren izen-emateko prozesu propioak garatuko dituzte. Guztira, prestakuntzako 11.680 ordu emango dira 6 eta 270 ordu arteko ikastaroetan, abenduaren 31 arte. Plazen % 60 bereziki aktibo dauden pertsonentzat dira, eta % 40, langabeentzat. Gastuaz Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa (SEPE) arduratzen da, eta azken horrek enpresa eta langileen kotizazioetatik datozen funtsak banatzen ditu.

Ikastaro guztiak 4 tipologiaren arabera banatzen dira: sektore arteko gaitasuna, ekonomia soziala, autonomoak eta profesionaltasun-ziurtagiriak.

Lehenengoak (sektore artekoa) parte-hartzaileen enplegugarritasuna garatzen utziko duten trebeziak, ezagutzak, edukiak eta tresna eskuratzea bilatzen du, oro har, zein sektoretan dauden kontuan hartu gabe. Guztira, tipologia horretarako 15 zentzori 195 ikastaro eman zaizkie (3.148 ikaslerentzat), 1,14 milioi euroan.

Bigarren tipologia langile autonomoentzat da: 11 ikastaro 275 ikaslerentzat, eta 99.825 euroan. Hirugarren lerroa ekonomia sozialera bideratu da berariaz: 19 ikastaro ANELen, 236 ikaslerentzat, 74.176 euroan.

Azkenik, 4. tipologia profesionaltasun-ziurtagiriak lortzera bideratuta dago. Aurten, araututako lanbideak dituzten langileentzako ikastaroak

lehenetsi dira, sozio-sanitarioa, adibidez: 9 zentrok 31 ikastaro emango dituzte, 540 ikaslerentzako gaitasunarekin eta 410.320 euroko kostuarekin.

## **26 prestakuntza-zentro**

Enplegurako prestakuntzaren estatuko araudi berria betez egindako lehenengo [deialdia](#) izan da, norgehiagoka osokoa. Aurrez, 1. planera (sektore artekoa), Nafarroako sindikatu eta enpresa-erakunde adierazgarrienak baino ezin ziren aurkeztu (UGT, CCOO eta CEN).

Araudi berriarekin, zentro guztiek dute aukera. Guztira, maila horretan [15 prestakuntza-zentroren](#) partaidetza onartu da:

ANET, Nafarroako Industria Elkarte, Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganbera Ofiziala, Irudi eta Soinuaren Irakaskuntza Zentroa SL (CTL), Nafarroako Gurutze Gorriko Prestakuntza Zentroa, Tafallako Informatika Zentroa S.L., CLEN College SL, Marketin Kluba, Nafarroako Enpresarien Konfederazioa – prestakuntza-zentro modura akreditatu dena-, FOREM Navarra, Eraikuntzako Lan Fundazioa, IFES, Rodoia 2000 SL, Iruñeko Salestarrak eta Prestakuntza nahiz Enplegu Sistema.